



Urtarrilean bertso eskola martxan jarri nahi dute Urnietan; Eli Pagola hernaniarra izango da irakaslea

2017ko azaroaren 24a, 545 zenbakia XIII. urtea Andoainen eta Urnietan doan banatzen da

BERTSO ESKOLA URNIETAN

Kontzientzia eta konpromisoa dira maskulinitate berriaren gakoak

“Eta gizonak zer? Maskulinitate berrietatik, indarkeria matxistari aurre egin” izeneko hitzaldia eskaini zuen Mikel Otxotorenak, joan den astelehenean Basteron.

Otxotorena soziologoa da ogibidez, On:Giz elkarteko kidea. Udalak azaroaren 25aren harira antolatutako hitzaldia hiru zatitan banatu zuen: indarkeria matxista ulertzeko lagungarria izan daitekeen testuingurua, maskulinitate matxista zertan oinarritzen den, eta, azkenik, gizonak indarkeria matxistari aurre egiteko zein lanketa egin beharko luketen.

Testuinguruaz jarduterakoan, gizontasun matxistaren eraikuntza sozialari eman zion garrantzia, eta aspektu horren inguruko hainbat alderdi aztertutako Otxotorenak. “Sexuen arteko sistemak binarismoa bultzatzen du: gizona-emakumea, heterosexuala-homosexuala, txuria-beltza... Simon de Beauvoirrek esan zuen bezala, gizon eta emakumeak ez gara jaiotzen, egin egiten gara. Ar eta eme jaiotzez gara berez, baina gero gizon eta emakume eraikitzen gara, eta eraikuntza horretan kulturak, erlijioak, maila sozialak eragina dauka. Azken batean, zer da gizon izatea eta zer emakume izatea? Balore eta kode batzuk barneratzen ditugu eta



Mikel Otxotorena soziologoa da ogibidez, On:Giz elkarteko kidea. Astelehenean hitzaldia eskaini zuen Basteron, Andoingo Udalak antolatuta.

gero horrela mugitzen gara egunerokotasunean”.

“Zuek, emakumeak, gizonak bezain matxistak zarete” bezalako esaldiek, debate faltsua planteatzen dutela adierazi zuen Otxotorenak. “Ulertu beharko genuke normala dela emakumeek ere erreproduzitzea matxismoa, ez direlako Marten hezi izan. Hala ere, gainkarga hori jartzen da emakumeengan, matxismoa erreproduzitzeagatik”.

GIZONEN LANKETA

Gizonezkoen egunerokotasunean mikromatxismo egoera ugari ematen da: “Pribilegio, botere edo dominio erlazioak ematen dira gizonezkoen eta emakumezkoen artean. Hain zuzen ere, gizonezkoei gehien onartzea kostatzen zaigun arloa da. Geuri dagokigun lanketa da, detektatzea eta zuzentzea. Ez da nahikoa pankartaren atzean jartzea, gauza ugari dauzkagu egiteko. Ez da goxoa

“Kontzientzia, konstantzia eta konpromisoa nahitaezkoak ditugu erronka berriei aurre egiteko”
Mikel Otxotorena

lanketa, aurre egin beharko zaie gizon izateagatik gugatik espero diren estereotipo horiei. Baina ardura hori hartu beharra daukagu, nahiz eta *rarito*, *txapas* eta antzeko adjetiboak entzun beharko ditugun”.

Baina, nondik jo? Feminismotik, eta, lesbianismoaren, homosexualismo eta transexualismoaren mugimenduetatik datozkigun planteamendu edota teoriari kasu eginez. “Kontzientzia, konstantzia eta konpromisoa nahitaezkoak ditugu erronka horiei aurre egiteko”.

Hitzaldiaren amaieran, entzuleen parte hartzearekin eztabaida interesagarria piztu zen. Entzule batek aipatu zuen, adibidez, unibertsitatean maiz aditu behar izaten duela berdintasun errealean batean bizi gara, emakumezkoek zein gizonetzkoek askatasun osoa daukatelako edozein ikasketatan matrikulatzeko. Testuinguruari erreparatu behar zaiola erantzun zion Otxotorenak. Alegia, geure buruari galdetu, esate batera, zergatik oraindik normala den erizaintzan ikasle gehienak emakumezkoak izaten jarraitzea.

[ANDOAIN, 7. ORR.]

Santa Zezilia Andoainen eta Urnietan



Ana B. Garcia eta Maribi Arruti.

Musikari eskainitako egunak izaten ari dira, Santa Zeziliaren ospakizunaren harira. Urnietan musika eskolako ikasle eta irakasleek musika kalera atera zuten, azaroaren 22an.

Andoainen Musikaz Bizi zikloa burutzen ari dira, eta igande honetarako Suite kontzertua antolatu dute. Bertan Oizartabalen pieza berria eskainiko dute.

[3. ETA 6. ORRIALDEAK]



Joxe Mari Oizartabal eta Mikel Empezabal.



HITZALDIA ANDOAINEN

Heziketa lana eta menpekotasunak

DBH eta Batxilergoko gazteen gurasoei zuzendua

Azaroak 29, asteazkena, 18:30.
Bastero kulturguneko ekitaldi aretoan.

EGITASMO BERRIA URNIETAN

Bertso eskola martxan jarriko dute Urnietan

Urnietan helduen bertso eskola martxan jartzeko asmoa dute, 2018ko urtarriletik aurrera. Eli Pagola Hernaniko bertsolari gaztea izango da eskolako irakaslea.

Dagoeneko herritar batzuek adierazi dute parte hartzeko gogoia. Bertaratzen diren bertsozaleen interesek eta abiadurek eskolaren martxa markatuko dutela ziurtatu du Pagolak.

Izena emateko epea irekita dago, azaroaren 30a bitarte. Zer nolako harrera eduki du deialdiak lehenbiziko egunean?

Pozgarria, egia esanda, dagoeneko hamar-hamabi lagunek eman baitute izena. Bertso eskola ez da, esate batera, hamaika lagun behar dituen futbol taldea; nahiko ariketa pertsonala da bertsoa, eta beraz, errazago edukiko dugu eskola abian jartzea.

Zer dela eta Urnietan bertso eskola sortzeko asmoa?

Ez da izan Hernaniko bertso eskolako kideei bat-batean otu zaigun burutaldia. Eskualdeko bertsozaleak aspaldian gabiltza herriz herri eskolak sortu nahian. Egun, Hernani, Lasarte-Oria eta Andoaingo bertso eskolak indartsu dabilta; Usurbilen ere sortu berria da. Argi daukagu Urnietan ere merezi duela saiakera egiteak, bertsozaletasuna sumatzen delako. Iraganean ez da posible izan, baina egun, ikusi dugu badagoela aukerarik. Batetik, ahalmena daukagula sentitzen dugulako, eta bestetik, Euskal Herriko Txapelketaren bultzadaz balia gaitezkeelako.

Urnietan sekula ez da helduen bertso eskolarik ezagutu, baina ez dut uste eskari faltagatik izan denik. Gogoratzen naiz zenbait urtetan Urnietatik gazte jendea etorri izan dela Hernaniko bertso eskolara. Jakina, beti ere herrian bertan eskola edukitzeak erraztu egiten du bertsozalea anima dadin, eta oraingoan halaxe gertatuko dela iruditzen zait.

Gainera, bertso eskolak Urnietan dagoen beste hutsune bat beteko du: ikastetxeetan bertsoa ikasten aritu diren ikasleei, bertsoari gogoz heldu diotenei behintzat, jarraitzeko aukera eskainiko die.

Urnietan bertsozaletasuna badela esan duzu.

Ni ez naiz urnietarra, baina baietz esango nuke, eta horren froga izan liteke urtean zehar ospatzen diren ber-



Eli Pagola bertsolaria.

tso jaialdiek edukitzen duten arrakasta. Esatera batera, Sanmieletan edo Xoxokako jaietan argi geratzen da zaletasuna badagoela, eta bertsoak jendea erakartzen duela plazara. Aurten, Sanmielen atarian Oianumen egin zen bertso afarian berrehun lagunetik gora bildu ziren! Harrigarria izan zen hura! Halakoetan erakusten da bertso gosea badagoela.

Zein filosofiari helduko dio Urnietako bertso eskolak?

Bertsozaleentzat espazio zabala izango da. Ez ditu goi helmugak jarriko, bertsoarekin gozatzea baizik ez; errimekin, silabekin, doinuekin... ohitzen joatea. Egunez egun joango da bidea egiten, eta bertaratzen diren interesetara egokitzen saiatuko da. Baten bat etor liteke errimak arintasunez kantatu nahian, beste bat bertsoa idazten ikasi besterik ez duela nahi esanez. Ez dago

jakiterik noraino iritsiko den bertso eskola Urnietan, baina bertako bertsozaleari etortzeko eta proba egiteko eskatuko nioke.

Bertso eskolako irakaslea zara, bertso-laria izateaz gain.

Bai. Ia bizitza osoa daramat bertsoaren munduan murgilduta. Ikastetxean bederatzi urterekin hasi nintzen bertsoa zer den ikasten, eta handik aurrera beti izan naiz bertso eskolako kidea. Bertso-ikasketaren dinamika horretan behin sartuz gero, konturatzerako eta modurik naturalenean, zure atzetik datozen gazteei klaseak ematen hasten zara, eta hori gertatu zait niri ere. Egun, Hernanin ez ezik, Usurbileko helduen eskolan eta Urnietako Egape ikastolako ikasleekin ere aritzen naiz.

Bertso eskoletan, irakaslea bezainbat edo gehiago izaten da bat dinamizatzaile.

Euskal Herriko Txapelketa jarraitzen ariko zara... Ezerk bereziki harritu al zaitu?

Erabat gertutik jarraitu ditut saio guztiak, aurrez aurre ez bada, telebista bidez. Orokorrean nahiko saio onak entzun ditugu. Ez dut topatu berezi-bereziki nabarmentzekorik, baina egia da bertsolaritzan sartuta egoteak eta plazaz plaza ibiltzeak gainerako bertsozaleek ez daukaten informazio eta ezagutza eskaintzen dizula. Alde horretatik, esate batera, niri ez dit ezustekorik eragin Nerea Ibarzabalek, gaztetatik ezagutzeko parada eduki baitut.

Txapelketa zer den probatutakoa zara zu ere.

Gazteen txapelketa ezberdinetan parte hartu izan dut, eta 2015ean Gipuzkoako Txapelketa nagusian kantatu nuen. Ez nintzen sailkatu Euskal Herrikoan kantatzeko aukera ematen zuten goiko postuetan, baina txukun aritu nintzela iruditzen zait.

Txapelketak gogoko dituzu?

Argi dago txapelketa batean ondo bazabiltza horrek atea irekitzen dizkizula hurrengo lau urtetarako; baina kontrakoa ere gertatzen da, hanka-sartze bat lau urterako zama izatera irits litekeela. Ondo bereiziko nituzke txapelketa eta gainerako bertso jarduna. Txapelketak ondo prestatzera bultzatzen zaitu, baina aldi berean, zeure buruak eta inguruak estutu eta presionatu egiten zaituzte.

Aldiz, esker onekoa da plazatako edo bertso afarietako ibilera bertsolari barentzat; entzuleak askoz ere harrera beroagoa eskaintzen dizu, nahiz eta bertsolari eskasagoa izan. Gehiago gozatzten dut horietan, nik behintzat bai.

IZEN-EMATEA BERTSO ESKOLAN:

- hernanikobertsoeskola@gmail.com
- Xauxar tabernako zerrendan izena emanda. Bertan izena eta telefono zenbakia ipini behar dira.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



Gipuzkoako Foru Aldundia

MUSIKARIEN EGUNA

Santa Zezilia egunean kalejiran, Urnietako kaleetan

Lourdes Iriondo Udal musika eskolan ekimen berritzailea egin zuten asteazken arratsaldean, lehen aldiz ikasleak eta irakasleak kalejiran irten baitziren.

Ana B. Garcia musika irakasleari lana biderkatu egin zaio, aurten zuzendari lanetan ere badabilelako. Pozarren dago, irakasleen inplikazioa eta ikasleen erantzuna bikaina izan delako.

Azaroaren 22an Santa Zezilia eguna ospatzeko kalejira antolatu du **Lourdes Iriondo Udal musika eskolak**. Aurtengoa estreinekoa izan da irakasle eta ikasle-entzat. **Ana B. Garcia** zuzendaria pozarren dago ekimenarekin.

Ikasketa buru eta musika eskolako zuzendari zaitugu aurten. Biak batera eramatea ardura handia al da?

Gure musika eskolaren tamaina ez da hain handia eta ondo sentitzen naiz bi ardurak batera eramanda. Pianoa irakasten hasi nintzen hemen, eta gerora baita organoa ere. Aurten zuzendaritzaren kargua hartzea proposatu zidaten, eta oraingo oso gustura nago.

Erosoa al da kargu berria?

Oreka bilatzea zaila da, lankideengana zuzendari bezala zuzentzen naizelako. Aldea dago, baina oraingo, esperientzia ondo doa. Oso giro polita dago, eta oso harreman ona dago gure artean. Gauzak argi esatea gogoko dut, eta niri ere argi hitz egiten didate. Kultur teknikariarekin eta zinegotziarekin ere harremana ona dudanez, oso babestuta sentitzen naiz.

Santa Zezilia eguna berezia al da zuretzat?

Bai, musikariaren eguna delako. Aurten, gainera, 70 ikasle atera ditugu kalera lehen aldiz. Abestuz eta musika joz kalejira osatu dugu, irakasle guztien lankidetzarekin. Musika eskolatik abiatu ginen arratsaldeko 18:00etan, eta herri-guneko hainbat tokitan aritu ginen. Lehen aldia da, eta esperientzia oso ona izan da.

Hutsunea betetzera dator, beraz?

Udal musika eskolan jai genuen, baina Santa Zezilia egunean kalejira antolatzeko proposamena luzatu nuen eta oso pozik nago denen erantzuna primerakoa izan baita. Irakasleek lanean jai izanik ere, bertara etortzeko konpromisoa hartu dute. Horrek asko esan nahi du.

Ikasleentzat ere oso polita da, saio berean irakasleekin batera aritzeko aukera izan baitzuten. Aukera hori ikasle askorentzat garrantzia handikoa da.

Logistika aldetik nola egin zenuten?

Entseguak egin genituen, eta jarduera guztietako ikasleak atera ziren kalejiran. Hori bai, pianoaren ordez, melodi-



Astelehen arratsaldean entsegua egin zuten Lourdes Iriondo Udal musika eskolan.

Aurten hirurogeita hamar ikasle aterako ditugu kalera, lehen aldiz. Abestuz eta musika joz kalejira osatuko dugu, irakasle guztien lankidetzarekin

karekin ibili ginen kalez kale. Musika eskolan kalera atera izan gara trikitixa eta panderoarekin, edota biolinarekin. Aste honetan, ordea, den denak atera gara.

Musika eskolak asebetetzen al ditu ikasleen eskaerak?

Eskaintza zabala da, baina berezia. Kantua edo gitarra ez ditugu eskaintzen, oraingo. Eskaerak egin ditugu udaletxean baina oraingo ezin izan ditugu bi eskaintza horiek bideratu. Gaur egun eskaintzen denarekin gustura gaudete.

Zein jardueran duzue ikasle gehien?

Gehienak piano ikasleak dira, eta ondoren trikitia eta pandero ikasleak. Garai batean, esku soinua zen jaun eta jabe,



Ana B. Garcia musika eskolako zuzendaria laster erretiroa hartuko duen Maribi Arrutirekin batera.

Udal musika eskolako irakasleek Santa Zezilia egunean jai izanik ere, ospakizunean parte hartzeko konpromisoa hartu dute. Horrek asko esan nahi du

baina hori aldatu egin da. Trikitia nagusitu zaio akordeoiari, nabarmen.

Santa Zeziliakoa ikasturte hasierako helburu nagusia al da?

Ez, bereziki. Saiatuko gara ikasturtean zehar maizago irteten. Asmo berri horiez gain, abenduan musika eskolako kontzertuak eskainiko ditugu Saroben, abenduaren 18tik 21era. Ahaztu gabe abenduaren 16an tuba kontzertua izango dugula, Udal musika eskolako irakasle Izaskun Oconen eskutik.

Andoaingo piano jaialdia urte hasieran izango da. Hitzordu hori berezia al da urnietarrentzat ere?

Auditorio ederrean kontzertua eskaintzeko ezinbesteko aukera da ikasleentzat. Urnietarrok, halere, zortekoak gara Saroben emanaldiak eskaintzeko aukera izaten dugulako. Baldintza profesionalean aritzen gara etxean, gainera.

Ehiza txapelketa Santa Krutz elkartearen eskutik



Herri mailako txapelketa antolatu dute abenduaren 16rako.

Urnietako **Santa Krutz** ehiztari eta arrantzaleen elkarteak ehiza xehea txakurrarekin lehiaketa antolatu du, datorren abenduaren 16rako. Partaideak Adarramendin lehiatuko dira, goizeko 09:00etan hasi eta eguerdiko 13:30ak arte. Lehiaketari amaiera emateko sari banaketa ekitaldia eta

oparien zozketa egingo dituzte Besabin. Parte hartzaileek, gainera, egun berean Santa Krutz elkartearen afaltzeko aukera izango dute.

Izen-ematearen prezioa 25 eurokoa da eta interesatuek abenduaren 10a baino lehen eman behar dute izena, elkartearen bertan.

Ikasgela zerbitzua Lekaion

Batxilergoko ikasleen eta oposaketak prestatzen dituzten pertsonen eskaerak kontuan hartuta, ikasgela zerbitzua zabalik izango da Le-

kaion astelehenetik ostiralera 13:00etik 19:30era. Intsonorizazio lanak egin dituzte, eta wifiaren kalitatea hobetu dute.

Unean uneko egoerak kudeatzeko ikastaroa Urnietan

Mindfulness ikastaroa Pepa Bojoren eskutik

Urtarrilaren 10etik martxoaren 14ra bitarte eskainiko da ikastaroa. Klaseak asteazkenean izango dira arratsaldeko 15:00etatik 17:00etara. Dagoeneko izena Bertan arreta zerbitzuan eman daiteke, abenduaren 15a azken eguna izanik. "Mindfulness: desde la consciencia aprender a manejar situaciones en el presente" du izena Pepa Bojoren tailerrak. Arreta eta kontzientziabete moduan uler daiteke mindfulness delakoa. Jarrera erreflexibo eta adeitsua da. Helburua oreka fisiko eta psikikoa lortzea da, eta baita osasun maila hobetzea ere.

Tailerra oso praktikoa izango da. Erlaxazio eta arnasketa teknikak, luzaketak eta kontzentrazio ariketak egingo dira oreka emozionala garatzeko baliabideak landuz. Gainera, osasun eta oreka emozional egokia lortzeko baliabideak eskuratzeko balioko du tailerrak;



Oreka fisiko eta psikikoa lortzea du helburu tailerrak, baita osasun maila hobetzea ere. Pepa Bojo izango da irakaslea.


Helburua oreka fisiko eta psikikoa lortzea da, eta baita osasun maila hobetzea ere

horretarako oinarria unean uneko momentua bizitzen ikastea, eta adimen osasuntsu eta positiboa izanik.

Erlaxazio praktiken, gorputz ariketen eta meditazio ariketen bitartez, momentuko esperientzian murgilduko da burua lasaituz, errealitatea den moduan onartuz eta ez epaitzeko eta interpretatzeko gaitasuna garatuz. Hori dena osasun hobetzaile lortzeko, bete-betean bizitzeko.

IKUSBERA

HAUR ALDIZKARIA



Datorren astean
Aurrerarekin batera.

Harpidedun izatearen abantailak

Abenduaren 3a, Euskararen nazioarteko eguna

“Euskara aldean, erabili lanean” lehiaketa



Danobatgroup enpresa taldeko kide da Andoaingo Latz S.Coop enpresa. Behean, lehiaketako galderetakoa, webgunean.

Euskararen nazioarteko egunaren harira, “Euskara aldean, erabili lanean” izeneko lehiaketa jarri du martxan **Danobatgroup**-ek. Lantegiak dituen herrietako biztanleei zuzendua dago, eta helburua bere lantegietan euskararekiko duten konpromisoa ezagutzera ematea da. **Latz S.Coop** enpresa talde horretako kidea da, Andoaingo Gudarien hiribidean egoitza duena.

Lehiaketa irekia da, edozeinek parte har dezake. Modu digitalean antolatu dute, eta parte hartzeko honako internet helbidean sartu behar da: <https://info.danobatgroup.com/euskara/lehiaketa-2017.html>. Koope-
ratibari buruzko galdera orokor batzuk erantzun ondoren Danobatgroup-eko hitzegi teknikoan sartu eta hainbat hitzen ordezkioak aukeratu beharko dira.

Datorren abenduaren 11 izango da lehiaketan parte hartzeko azken eguna. Parte-hartzaile guztien artean bi bono zozketatuko dira. Eta zein da saria? Bi lagunentzat asteburu pasa Euskal Herriko nekazal-
rismo batean.



“Datorren abenduaren 11 izango da lehiaketan parte hartzeko azken eguna”


DANOBATGROUP ETA EUSKARA

Enpresa taldeak harreman sare zabala du eta bezeroekin sarri ingelesez aritu behar izaten bado ere, bertako langile, hornitzaile, bezero, ikastetxe, administrazio eta abarrekin euskara erabiltzeko konpromisoa sendoa du. Horren adierazgarri dira kooperatiba guztietan euskararen erabilera bultzatzeko dituen planak, lortutako eta lortzeko bidean dauden Bikain euskararen

kalitate ziurtagiriak... Horrez gain, konpromisoa sendoa du gizartearekin. Hainbat ekimenekin elkarlanean ari da enpresa jardueraren eremu geografikoan ekonomia soziala sustatzen eta laguntzen, heziketa eta prestakuntza sozio-kooperatiboa eta profesionala bultzatzen, izaera soziokulturaleko eta asistentzialeko jarduerak bultzatzen eta sustatzen, eta elkartasuna eta interkooperazioa bultzatzen, bai eta ikerketa eta garapena bultzatzen ere, jarduera berriak zein interes bereziko proiektuak babesten dituzten ekimenen alde eginda. Eta gizartearekiko konpromisoa sendoa horretan kokatzen da euskararekiko konpromisoa ere.



Lan poltsan sartzeko oinarriak argitaratu dituzte



Beterri-Buruntzako Udalek (Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil) Enpresa, Ekin-tzailatza eta Gizarte Enplegu Erdi-mailako Teknikarien lanpostua aldi baterako betetzeko deialdia egin dute.

Aurkezteko azken eguna abenduaren 7a da, eta hauek dira aurkeztu beharreko dokumentuak: NAN, deialdian eskatutako tituluaren fotokopia, C1 (3. profila) euskara egiazteagiriaren fotokopia, desgaitasunen bat duen norbaitek %33ko desgaitasuna edo handiagoa duela aitortzen duen egiazteagiriaren kopia eta eskaera-orria. Informazio guztia andoain.eus/be-riak webgunean dago esku-
ragarri.

Ekonomia eta enpresa zientzietako, enpresen administrazio eta zuzendaritzako, ingeniariatzako, zuzenbideko, gizarte graduako, natur zientzietako, gizarte zientzietako, lan harremanetako edo soziologia eta politika zientzietako unibertsitate tituluduna izatea eskatzen da. Diploma, gradua edo titulu baliokideren bat duela frogatu beharko du.

Gazteen gurasoei zuzendutako hitzaldia



AGIPAD drogen abusuaren ikerketa eta prebentziorako Gipuzkoako elkartarekin elkarlanean antolatu dituzte hitzaldiak Andoainen.

Gazteen artean ematen den alkohol eta droga kontsumoa guraso batzuren kezka iturri bihurtu da, eta prebentzioa areagotzeko beharra agertu dute. Eskaera horri erantzunez, **Andoaingo Gazte Lokalak** “Heziketa lana eta menpekotasuna” izeneko hitzaldi sorta antolatu du hilabete honetan. Biak ala biak **AGIPAD** drogen abusuaren ikerketa eta prebentziorako Gipuzkoako elkartarekin elkarlanean antolatu dituzte. Lehenengoa DBHko ikasleei zuzendurikoa izan zen, joan zen azaroaren 15ean egin zutena.

Hurrengoa datorren azaroaren 29an izango da, DBH eta Batxillerreko ikasleen gurasoei zuzenduta, Bastero kulturunean arratsaldeko 18:30ean hasita. Hitzaldian drogen erabilera eta menpekotasunaren inguruko irizpideak eskainiko dituzte, eta gazteei laguntza emateko nola eragin azalduko dute. Gaia interes handikoa da ne-

“Heziketa lana eta menpekotasuna” hitzaldia datorren azaroaren 29an izango da Basteron, 18:30ean hasita”

rabezartotik heldutasunera igarotzen ari diren seme-alaben gurasoentzat.

AGIPADek hitzaldien atarikoan honakoa adierazi du: “Menpekotasunak oraindik ere gure errealitatean eguneroko kontu dira eta, horrenbestez, hezitzeko gure egin-kizun horretan oso aintzat hartu beharko ditugu; baina, nola hel diezaiokegu tamaina horretako arazoari? Zer egingo nuke nik nire familian menpekotasunekin arazoak dauzkagula sumatuko banu? Azken finean, nola hurbildu nerabe horrengana heldutasunerantz hasita duen bide horretan?”. Horiexek eta gehiago Basteron aztergai izango dituztenak.

SANTA ZEZILIA ZIKLOA ANDOAINEN

‘Suite kontzertua’ Udal musika eskolako Bandaren eskutik

Hiru emanaldi egin dira dagoeneko, aurtengo “Musikaz bizi!” zikloaren baitan. Joan zen astean ekitaldiak aurkeztu zituzten eta bertan herriko musikak bizi duen egoera bikaina nabarmendu zuen Esti Mujika

Kultura zinegotziak: “Musika osasuntsu dago Andoainen, eta horrela izan dadila urte askoan! Herritarrei ekitaldietara hurbiltzeko gonbidapena luzatu nahi diegu, musikaz goza dezaten”.

Santa Zezilia gogoan, Andoainen musika zikloa abiatu da. Eta herriko musikagintzari dagokionez, igande honetako Suite kontzertuak izaera berezia izango du. Basteron eguerdiko 12:30ean hastekoa den kontzertua horrela definitu zuen **Mikel Emezabal** Bandako zuzendaria: “Musika atal ezberdinen bilkura da. Normalean oso aukeraketa selektiboa, fina, maila handikoa izaten da”. Kontzertua sinfonikoa izango da, eta honako lau piezek osatuko dute: *Suite Clasica* (Tomas Aragües), *Peer Gynt suite* (Edward Grieg), *Norfolk dances suite* (Philip Sparke) eta *Trentxikitik barrena* (Joxe Mari Oiartzabal).

TRENTXIKITIK BARRENA PIEZA BERRIA, AURTENGO EMANALDIKO PIZGARRIETAKO Andoaingo konposatzailearen piezak emango dio amaiera emanaldiari. Emezabalek **Joxe Mari Oiartzabalen** prestutasuna nabarmendu zuen: “Kontzertuan estreinatzeko suite pieza bat sor zezala proposatu nion Joxe Mariri; hark baietz erantzun zidan, eta oso gustura ekin zion lanari. Hiru hilabetera edo, partiturak eginak zeuzkan. Lehengo egunean gurekin entsaiatu eta oso pozik geratu zen. Abesti berri hori, beraz, igandeko kontzertuaren pizgarrietako bat izango da. Ziur nago kontzertua arraskatsua izango dela, musikazaleentzat erakargarria”.

Umetako bizipenak eta oroitzapenak izan ditu inspirazio iturri Joxe Mari Oiartzabalek, *Trentxikitik barrena* abestia osatzeko orduan. Bera bezala,



Irurtzun, Mujika, Emezabal, Beraza, Setien eta Orbegozo, zikloaren aurkezpen ekitaldian.

aita ere musikari handia izan zen. Harekin batera Plazaolako bidean makina bat aldiz ibili zen pasieran, herritik abiatuta eta Bertxinera bitarte. Une horiek gogoan, enegarren pieza berria estreinatuko du sorterrian. Sorkuntza lan etengabea murgilduta dabil azken urteotan Joxe Mari Oiartzabal.

IGANDEKO EMANALDIAREN AURRETIK, MUSIKALEAN OSTEGUN HONETAN

Mirari Irurtzun Udal Musika Eskolako zuzendariak Musikalean egitasmoa azaldu zuen: “Musika Eskolan sortu den eskaintza da, eta musika kalera eramatea du xede. Txiki-txikitik ikasleek musikaren ospakizunarekin gozatzea

nahi genuke”. Ostegun honetan, Arratsaldeko 17:30ean hasita, Juanita Alkain plazan gitarra eta biolina entzungo dira. Kale Nagusian, aldiz, perkusioa, tronpetak, saxofoiak eta klarineteak. Bastero parean, Kale Nagusian, esku-soinu taldea. Eta, azkenik, Bastero plazan kantu taldea.



Juan Saez Irakaslea bakarlarri modura arituko da Suite klasikoan.



Joxe Mari Oiartzabal eta Mikel Emezabal entseguan, *Trentxikitik barrena* piezaren partitura eskuetan.

SORTZEN CONSULTORIA ENPRESAK EGIN DU ANDOAINGO UDALARENTZAT

Indarkeria matxistaren diagnostikoa aurkeztu dute

Emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna ez da Andoainen oharkabean igaroko. Ekitaldi ugari antolatu dituzte, errealitate latz horrekiko kontzientzia hartzen jarraitzeko. Autode-

fentsa ikastaroarekin, Mikel Otxotorenak maskulinitateaz eskainitako hitzaldiarekin eta 'Itsaspeko bihotzak' erakusketarekin hasiera eman diote aurtengo zikloari.

Emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko egunari lotuta, **Andoingo Udalak** ekitaldi sorta antolatu du Andoainen. Bereziak akaso larunbat honetan iritsiko da, Goikoplazan aitor-tza ekitaldia egingo baitzaie indarkeria jasan duten emakumeei. Orohar hartuta, egoera gogor eta zail horri aurre egin dion emakumea aintzat hartu nahi dute. Lehenik, ibilbide modukoa egingo dute Juanita Alkain plazatik Goikoplazara. Eta, ondoren, ekitaldia.

Indarkeria matxista ez baita hedabideetan agertzen den gertaera hutsa, Andoainen bertan urtez urte indarkeria matxista pairatzen duten emakumeen kasuak ematen dira. Eta hain zuzen ere, Udaleko **Emakume eta Gizonen Berdintasun lantsailak** indarkeria matxistari buruzko diagnostia eskatu dio Sortzen kontsultoriari, eta datu horiek ostegun honetan aletuko dituzte, Basteron, arratsaldeko 18:30ean hasita.

Jone Gurrea adituak aurkeztuko duen diagnosiaren atarian, **Sandra Barrenetxea** Berdintasun teknikariak eta **Ainara Rodriguez** zinegotziak aurrerapen modukoa eskaini zuten hedabideen aurrean. Aurrerapen moduko horretan argi eta garbi geratzen da indarkeria matxista kasuak Andoainen ere ematen direla. Bikotekideak edota bikotekide ohiak eragindako indarkeria kasuak Andoainen oso adierazgarriak dira. Bataz beste, 2014tik 2016ra, urteko 20 kasu antzeman dituzte. Eraso sexualen kasuan, 2016an bi kasu eman ziren. Beraz, ez dugu hedabide nagusietako lerroburuetara mugatu behar. Kasu gehienetan, ezkutuan, gertaera latzak gertatzen dira herrian bertan. Diagnostiko horren aurrerapenean indarkeria pairatu duten emakumeen adina ere hizpide izan zuten. Indarkeria ka-



Sandra Barrenetxea Berdintasun teknikaria eta Ainara Rodriguez zinegotzia astelehen eguerdian eskaini zuten agerraldian. Emakumeen aurkako indarkeria kasuen diagnostikoaren aurrerapena egin zuten.

Bikotekideak edota bikotekide ohiak eragindako indarkeria kasuak Andoainen oso adierazgarriak dira. Bataz beste, 2014tik 2016ra urteko 20 kasu antzeman dituzte

su gehienetan 21 eta 50 urte arteko emakumeen artean ematen dira, nagusiki 31-40 urteen artean.

51 urtetik gorako kasuan ia salaketarik ez da gertatu, baina horrek ez du esan nahi indarkeria kasurik ematen ez denik. Adinean gora doazenak izan ohi dira salaketa jartzera beldur gehien adierazten dutenak.

Diagnostikoan indarkeria pairatu duten emakumeen adina aipatzen da. Indarkeria kasu gehienak 21 eta 50 urte arteko emakumeen artean ematen dira, nagusiki 31-40 urteen artean

Datu horiekin 100 emakumeekiko indarkeria kasuen tasa 1,3koa dela dio Sortzen kontsultoria enpresak. EAEko %0,4 tasatik gorago. Datu hori, bere horretan, nola analizatu behar da? Batetik, datu kezkarria da tokiko portzentaiak herrialdearen batz bestekoa gaititzen duelako. Baina, bestetik, salaketarako kontzientzia gehiago dagoe-

la adieraz dezake. Txarrean, ez dago gaizki. Salaketaren bidean ausardia gehiago nabaritzen dela ulertu behar baita.

